

- Osasun Planean zerbitzu sanitarioen erosketa ezartzea ezaugarri bereizgarria da, beste Komunitate Autonomo eta herrialdeekiko, eta ondorio handiko ezaugarria. Prozesuak banan-banan hartzea, kalitate-adierazleak sartzeta, azterketak kontratatzea eta lehen mailako atentzioa lehenetsunez eskaintzea, guztiok helburu hau lortzeko lanabesak dira.
- Osasun Sailak Osasun Planarekin erlazionatutako programa konkrituak ezarri ditu (Bularreko Minbizia Goiz Detektatzeko Programa, Haurren Hartz-Programa eta Haurren Istripuak Prebenitzeko Programa). Gainera, Eusko Jaurlaritzako zenbait Sailekin batera garatutako jardueretan parte hartu du (Gazte-Plana, Osasun Batzorde Mistoa -Hezkuntza- Drogamendetasunak, eta Osasuna eta Emakumearen gaitako Batzordea).
- Osasun Sailak zenbait egitura-aldaketa izan ditu azken urteotan; aldaketok ondorioak utzi dizkiote Osasun Planaren funtzionamenduari, eta inoiz ere ez zaio asignatu Planari, praktikan behintzat, egitura organiko konkriturik.

5. Osasun Planari buruzko inkesta, profesional sanitarioen artean egindakoa

Osasun Planari buruz profesional sanitarioek zekitena jakiteko, inkesta bat egin zitzaion postaz Osasun Saileko eta Osakidetzako langile-lagin bati. Emaita printzipalenak ondokook izan ziren:

- 1994ko Osasun Planari buruzko ezaguera-maila baxua izan zen, Euskadiko Osasun Publikoko Sistemako profesionalen artean. Osasun Planaren existentziaren eta bere edukiaren hedapena eskasa eta efikazia gutxikoa izan zen.
- Osasun Planaren erabilgarritasunari eta efektibitateari buruzko hautemana edo pertzepzioa Plana ezagutzen zuten profesionalen artean positiboa izan zen. Hala ere, profesionalen proportzio txiki batek bakarrik esan zuen Osasun Planak euren praktika profesionalean eraginak izan zituela.
- Osasun Plan berriari begira, beharrezkoa izango litzateke profesional sanitarioen artean estrategia bat martxan jartzea Planaren edukia aurkezteko eta hedatzeko. Gainera, Osasun Planak eraginik handiena izan dezan eta bere efektibitatea hobea izan dadin, beharrezkoa izango litzateke asistentzia-maila guztietako profesional sanitarioak Planaren garapenean eta aplikazioan inbolukratzea.